AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4190

1292/2011 EBAZPENA, uztailaren 22koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, txanda irekiko destinoen esleipena argitaratzen da, administrazioko teknikari laguntzaileen lanbide-taldeko administrari laguntzaileen kategorian; destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan izango dute.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 28ko 4235/2008 Ebazpenaren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautatze-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu ziren (2008ko abenduaren 3ko EHAA, 232. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren azaroaren 28ko 4239/2008 Ebazpenaren bidez, estatutupeko langileen egoerara heltzeko eta administrazioko teknikari laguntzaileen lanbide-taldeko administrari laguntzaileen kategorian destinoak betetzeko hautaprobetarako deia egin zen (Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeak). Deialdi hori 2008ko abenduaren 3ko EHAAn argitaratu zen (232. zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 16ko 193/2011 Ebazpenaren bidez, hautatutako izangaien behin betiko zerrenda eta txanda irekiko destinoen esleipena argitaratzen da, administrazioko teknikari laguntzaileen lanbide taldeko administrari laguntzaileen kategorian. Destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan izango dute.

Hautaketa-prozesua arautzen duten oinarri orokorretako 22. puntuan ezarritakoaren babesean, gora jotzeko errekurtsoa jarri zuen Concepción Aguirre Alba andreak, otsailaren 7ko 193/2011 Ebazpenaren aurka, eta errekurtso hori baietsi egin zuen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, erabaki baten bidez.

Erabaki horren ondorioz, Concepción Aguirre Alba andreak, txanda irekiko destinoen esleipenerako eskubidea berenganatu du, administrazioko teknikari laguntzaileen lanbide-taldeko administrari laguntzaileen kategorian. Destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan izango du.

Horregatik guztiagatik, eta langileen arloan indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– EHAAn argitaratzeko agintzea txanda irekiko destinoen esleipena eta izangaien behin betiko puntuazioa, hain zuzen ere, administrazioko teknikari laguntzaileen lanbide-taldeko administrari laguntzaileen kategorian; destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan izango dute.

Ebazpen horretan jasoko dira esleitutako destinoen zerrenda (I. eranskina) eta izangaien puntuazioa (II. eranskina).

Bigarrena.– Esleipendunek hilabeteko epea izango dute dagokien destinoko lanpostuaz jabetzeko, esleipen-ebazpenak Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Destinoko lanpostuaz jabetzeko ekitaldia Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Zuzendaritza Nagusian izango da, egoitza nagusian, izangaiak aldez aurretik ordua eskatuta. Esleipendunek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute ekitaldi horretan:

– NAN, pasaportea edo gidabaimena, edo, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu kideren bateko nazionalitatea badute, agiri baliokidea, eta agiri mota hori bera, langileak estatu batetik beste batera libre ibiltzeko aukera aplikatzen zaien estatuetako nazionalitatea dutenen kasuan, betiere, eskubide hori Europar Batasuneko Itunaren arabera nahiz Espainiak berretsitako beste hitzarmen batzuen babesean nahiz lege arau baten bidez aitortuta badago.

Parte hartzeko eskubidea izanik Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek beren nazionalitatea egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar dute eta, beste Estatu bateko nazionalitatea duen pertsona batekiko ahaidetasun-lotura badute eta haren kontura bizi badira edo haren kargura badaude, lotura hori dutela eta haren kontura bizi direla edo haren kargura daudela egiaztatzen duten agiriak. Era berean, beste Estatu bateko nazionalitatea duen pertsona horren zinpeko aitorpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute; hartan, pertsona horrek adieraziko du ez dagoela ezkontidearengadik zuzenbidez bananduta eta, hala egokituz gero, izangaia bere kontura bizi dela edo bere kargura duela.

– Elkargokide izateari buruzko ziurtagiria, baldin eta deialdiko oinarri espezifikoetan hala eskatzen bada.

– Zinpeko aitorpena edo hitzematea, jakinarazteko ez direla diziplina-espediente baten bidez inongo administrazio publikotako zerbitzutik bereizi eta ez daudela zeregin publikoetan jarduteko gaitasungabetuta.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek, Espainiako Estatuari buruzko aitorpenaz gain, zinpeko aitorpena edo hitzematea aurkeztu behar dute, esanez ez daudela eginkizun publikoetarako gaitasungabetuta edo antzeko egoera batean, eta, orobat, haien Estatuan, baldintza beretan, funtzio publikora sartzea eragozteko moduko diziplina-zehapen edo baliokiderik ez dutela.

Destinoaz jabetzeko unean, destinoa normaltasunez betetzeko behar den gaitasun psikofisikoa egiaztatzen duen azterketa medikoaren agiria aurkeztu behar dute, Osakidetzako Prebentzio Zerbitzuak emana.

Hirugarrena.– Esleipendunek ez dute estatutupeko langile gisa esleitu zaien lanpostuaz jabetzerik izango, eta baliorik gabe geratuko dira ordura arteko jarduketak, baldin eta ezarri zaien epean, eskatutako agiriak aurkezten ez badituzte edo, agiriak aztertuta, kategoria/lanpostu funtzional horretara sartzeko baldintzaren bat bete gabe dutela ikusten bada; horrez gain, erantzukizuna ere eskatu ahal izango zaie hasierako eskaera faltsutzeagatik.

Era berean, interesdunei jakinarazten zaie, epe barruan, edo, hala dagokionean, epe luzatuan, lanpostuaz jabetzeko ekitaldira aurkezten ez badira, galdu egingo dituztela hautaprobei buruzko ebazpenean aitortu zitzaizkien eskubideak.

Orain arte adierazitakoari jarraituz, lanpostuaz jabetu eta biharamunean hasiko dira lanean destinoaz jabetzen diren izangaiak, dagokien zerbitzu sanitarioetako erakundean.

Laugarrena.– Hautatze-prozesua arautzen duten oinarri orokorretako 22. puntuan ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 22a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.

I. ERANSKINA

KATEGORIA: ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA

IREKIA - DESTINOEN ESLEIPENA

LANPOSTU FUNTZIONALA: ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA

NAN	Izen-abizenak	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa	HE	Derrig. data
15381480	Aguirre Alba, Concepción	Deba Garaiko Ospitalea	Deba Garaiko Ospitalea	2	2009-06-01

II. ERANSKINA

BEHIN BETIKO HAUTAGAIEN ZERRENDA

KATEGORIA: ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA

DESTINOA LORTZEN DUTEN HAUTAGAIEN ZERRENDA

NAN	Izen-abizenak	Esperientzia	Prestakuntza	Euskara	Lehiaketa	Oposaketa	Guztira	Txanda
15381480	Aguirre Alba, Concepción	17,0000	11,0000	17,0000	45,0000	98,0000	143,0000	L

L: Irekia LD: Irekia ezgaitua